

Euskal enpresen salmenta, merkataritza elektronikoen bidez, 5.008 milioi euro dira 2005. urtean, %16,1 gehitu ondoren.

Erosketak, bestalde, 2.372 milioi euro dira, denboraldi berean %17,9 hazi baitira.

Merkataritza elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan, hazten ari da, bai kopuru ekonomikoetan bai parte hartzen duten enpresetan, EUSTATEN datuen arabera. 2005ean sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoekin (EDI, datu elektronikoen elkartrukea...) egindako negozio zifra 5.008,1 milioi eurokoa izan zen salmenta elektronikoen aldetik, eta 2.371,7 milioi euro erosketei dagokienez.

Goiko horren arabera, iaz merkataritza elektronikoen bidezko salmentak %16,1 hazi ziren, urte horretan 4.311,8 milioi eurokoak izan ziren eta. Erosketa elektronikoen ere %17,9 egin zuten gora, 2004ko kopurua (2.012,5 milioi euro) gaindituta.

1. taula: Merkataritza elektronikoen bidezko erosketak eta salmentak, lurraldearen, jardueraren eta langile kopuruaren arabera.

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2004	2005	%	2004	2005	%
C.A. de Euskadi	2.012,5	2.371,7	17,9	4.311,8	5.008,1	16,1
Lurralde historikoa						
Araba	417,4	476,3	14,1	2.142,5	2.367,1	10,5
Bizkaia	1.137,9	1.342,7	18,0	1.241,6	1.612,2	29,9
Gipuzkoa	457,1	552,7	20,9	927,7	1.028,8	10,9
Sektoreka						
Industria	1.003,3	1.249,2	24,5	2.780,2	3.289,6	18,3
Eraikuntza	4,9	2,9	-40,8	0,6	2,4	-
Zerbitzuak	1.004,3	1.119,6	11,5	1.531,0	1.716,1	12,1
Enpregu-geruzaka						
Oti 9rakoak	511,4	705,0	37,9	507,2	656,1	29,4
10 eta gehiagokoak	1.501,1	1.666,7	11,0	3.804,6	4.352,0	14,4

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: Eustat

Balio absolutuetan, lurralde historikoen arabera, Araba nabarmentzen da salmentetan eta Bizkaia erosketetan. Jarduera adarren arabera, erosketa nahiz salmentetan industria nabarmentzen da gainerako sektoreen aldean. Enpresen tamainari dagokionez, 10 langile edo gehiagokoek erabili zuten sarrienik merkataritza elektronikoa.

Merkataritza elektronikoa diharduten euskal enpresen kopurua gehitzea erosketak egiten dituzten enpresen gehikuntzak ekarri du batez ere

Kopuru ekonomikoetan salmentek erosketak bikoizten dituzten arren, parte hartzean, produktuak bitarteko elektronikoen bidez erosten dituzten establezimenduen kopurua

askozaz ere handiagoa da, eta horrela saltzen dituztenek baino gehikuntza handiagoak lortzen dituzte.

Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak 2004ko %7,7tik %10,5era igo ziren 2005ean. Gehikuntza horren arrazoia da bitarteko elektronikoekin erosten duten enpresen kopuruak gora egin duela, haien %9,6 baitira, eta bitarteko berberekin salmentak egiten dituzten enpresak ere gora egin dutela, neurri txikiagoan bada ere, guztien %1,9 izanik; gehikuntza, beraz, ehuneko 2,7 eta 0,2 puntu izan da, hurrenez hurren.


2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera. %

	Establezimendua guztira					10 langile edo gehiago				
	2005	2004	2003	2002	2001	2005	2004	2003	2002	2001
Salerosketa elektronikoa	10,5	7,7	5,1	4,4	3,0	19,5	13,6	10,9	10,0	6,4
erosketak	9,6	6,9	4,3	3,6	2,7	17,3	11,2	8,7	8,3	5,1
salmentak	1,9	1,7	1,4	1,3	0,4	5,1	4,2	3,7	2,8	1,8

Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza elektronikoa diharduten establezimenduak 19.500 inguru dira. Establezimendu horiek modu elektronikoan egiten dituzten erosketak euren erosketa guztien %15,5 dira. Salmentak, berriz, salmenta guztien %24,6 dira.

Gainera, tamaina kontuan izanik, 10 langile edo gehiagoko enpresen artean, %19,5ak merkataritza elektronikoa egiten dute, 2005ean %5,9ko hazkunde handia gertatu ondoren. Atal honetan, halaber, erosketa elektronikoak egiten dituztenek (%17,3) eragin dute aipatu gehikuntza, hauen kopurua %6,1 gehitu baita aurreko urtearen aldean. Gehikuntza txikiagoa izan arren, salmenta elektronikoak egin dituztenek ere (%5,1) izan dute zerikusirik gehikuntza horretan, aurreko urtean baino %0,9k gehiagok saldu zuten bide hori erabiliz.

1.- grafikoa: Salmentak, bezero motaren arabera, 2005ean (%)




Iturria: Eustat

2005ean merkataritza elektronikoen bidezko salmentak izan dituen bezero motari dagokionez, salmenta elektronikoz guztien %86,9 beste enpresa batzuentzat izan da (B2B izeneko merkataritza), %11,9 kontsumitzaile partikularrentzat izan da (B2C) eta gainerako %1,2 beste bezero batzuetarako izan da, esate baterako, administrazio publikoentzat (B2G).

Erosketa elektronikoa egiteko bitartekoei dagokienez, %33,4 EDIren eta beste sare batzuen bidez egin dira, %26,0 norberaren webgunearen bidez eta gainerakoa (%40,6) posta elektronikoen bidez. Salmenta elektronikorik gehienak, bestalde, EDI eta beste sare batzuen bidez egin dira (%53,1), norberaren webgunearen bidez (%31,1) eta posta elektronikoen bidez (%15,8).

2. grafikoa: Merkataritza elektronikoa, salbidearen arabera, 2005ean (%).




Iturria: Eustat

Azkenik, bezeroen kokalekuaren arabera, sarearen bidez eginiko salmenten banaketa hauxe da: guztira fakturatutakoaren %43,0 Europako Batasunerako da, %30,4 Estaturako, %24,5 Euskal Autonomia Erkidegorako, eta %2,1 munduko gainerako lekuetarako.

Erosketei dagokienez, enpresek orain erosketa elektronikoen lehen jatorri gisa (guztien %42,0) Espainiako Estatua deklaratu dute. Gero, %33,3, EAE, eta gainerakoak EB-tik datoz (%21,6) eta munduko gainerako lekuetatik (%3,1).

3. grafikoa: Erosketa eta salmenta elektronikoak: non erosi den eta nora saldu den 2005en (%)



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada

Tel:+34-945-01 75 07 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>